

KANTIK

III. AHOTS MUSIKA ZIKLOA

Tolosako Hodeiartz Abesbatzak urtero antolatzen duen KANTIK ahots musika zikloaren 3.edizioa ospatuko du aurten. Ziklo honek 3 kontzertu izango ditu, aproposak adin guztietako entzuleentzat: haur, gazte zein helduentzat.

Lehenengo emanaldia gazteei zuzendutakoa izango da bereziki: Tolosako Hodei Abesbatzak Faureren *Requiem* obra eskainiko du urriaren 5ean.

Bigarren kontzertua Hodeiartz abesbatzak berak eskainiko du Mallorkatik datorren Cor Academia 1830 abesbatzarekin batera eta Arimaz ganbera orkestrak lagundurik. Urriaren 12ko emanaldi horretan Rutterren *Requiem* obra izango da kontzertuaren ardatza.

Hirugarren kontzertuan 2 haur abesbatzak parte hartuko dute: Tolosako Laskorain ikastolako LASK Abesbatzak eta Begues institutuko abesbatzak. Kontzertu hori urriaren 18an izango da.

KANTIK Ahots Musika Zikloa ezagun egin da Tolosaldean, ahalegina egiten baitugu gure emanaldiak eskualde osora zabaltzeko, eta Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren laguntzarekin, probintzia osora ere iritsi da ekimen honen itzala. Sustraiak bota ditu urteroko ekitaldi bezala eta, ahots musika protagonista bihurturik, emanaldi desberdinak programatzen ditugu. Saiatzen gara urtero ohikoak ez diren emanaldiak antolatzen, obra berritzaileak edo gutxitan entzun ohi diren egitarauak osatuz. Gainera, adin desberdinetako entzuleengana heltzen saiatzen gara, euskal kulturaren erroterik dagoen abesbatza musika ezagutarazteko.



Jarraian KANTIK zikloa osatzen duten emanaldien informazioa:

Data	Intérpretes		Ordua	Lekua	Zuzendaria	
Urriak 5	HODEI ABESBATZA	Fauré-ren Requiema	20:15	Santa Klara komentua	David Azurza	Elkartasunezko kontzertua 5€
Urriak 12	Academia 1830 Tolosako Hodeiertz Abesbatza Arimaz Orkestra	Rutter-en Requiema	20:15	San Frantzisko eliza	Enrique Azurza	Sarrera 10€ Murriztua 5€
Urriak 18	Lask Abesbatza Coral del Institut de Begues	Abesti herrikoiak	19:30	Sakramentinoak	Naiara Mintegia Manel Cubeles	Sarrera doan

Behean, emanaldi bakoitzean parte hartzen duten abesbatzen eta emanaldien informazioa.

Urriak 5

Hodei Abesbatza



KANTIK
III. Ahots Musika Zikloa
III Ciclo de Música Vocal
Hodeiertz Abesbatzak Antolatuta
TOLOSA 2019

REQUIEM BAT
Musika: G. Fauré/D. Azurza/F. Gorriti
Testuak: X. Lizardi/J. Artze/Liturgia

Urriak 5 - 20:15etan
Santa Klara Komentua

Tolosako Hodei Abesbatza
Iker Bilbao, biolina
Javier Almenar, cello
Aitor Furundarena, akordeoia
Edurne Usandizaga, sopranoa
David Azurza, zuzendaria

Elkartasunezko kontzertua: 5€



GABRIEL FAURE-ren Requiem-ari buruz

Musica: G. Fauré / D. Azurza / F. Gorriti / A. Furundarena
Textos: X. Lizardi / J. Artze / Liturgia

Tolosako Hodei abesbatza
Iker Bilbao, Biolina
Javier Almenar, cello
Aitor Furundarena, eskusoinua
Edurne Usandizaga, sopranoa

Zuzendaria:
David Azurza



Gabriel Fauré konpositorearen Requiem meza 1888an estreinatu zen bere lehenengo bertsioan, organorako, ganbera taldeetarako eta abesbatza mistoetarako, eta urte batzuk geroago, orkestratu egin zen. Requiem meza ezagunenetakoa da Faurérena; izan ere, ihes egiten dio hildakoei zuzendutako mezetan hain ohikoa den dramatismoari, eta musikaren historian lehenengo aldiz, heriotza beste modu batean ulertzen du, hain zuzen, “zorioneko askapen moduan, helburutzat zoriontasun gorena duena, eta ez esperientzia penagarri moduan”.

Aurkeztuko den bertsioa emakumeen abesbatzarako eta hirukote instrumentalerako egokitzapen bat da, David Azurzak egindakoa Aitor Furundarenaren laguntzaz. D. Azurzaren eta F. Gorritiren obra batzuk eta obra gregoriar batzuk ere tartekatzen dituenek, birsorkuntza liturgiko libre baten forma hartzen du. Era berean, beste testu batzuk ere biltzen ditu, batzuk liturgikoak, eta beste batzuk beste estilo batzuetako autoreenak, esaterako, X. Lizardirenak eta J. Artzerenak, haiek ere, beren ikuspegitik betiere, heriotzaren inguruan dihardute-eta.

Hodei Abesbatza

2010ean sortu zen emakume gazteen abesbatza gisa, Tolosako Hodei Truk haur abesbatzako abeslariez osatuta, eta David Azurzaren gidaritzapean. Geroztik, Euskal Herrian, Bartzelonan eta Alemanian izan ditu emanaldiak. 2013an, autore tolosarren obra sakratu batzuk grabatu zituen Agur Jesusen Ama izeneko diskoan; bertan, Tolosako Santa Klara Elizako Stoltz Frères organoaz lagunduta Gerardo Rifón organo-jotzaileak. Hiru urteko etenaldi baten ondoren, 2018an berriz ekin zion bere jardunari, eta horren ondorio dugu **Requiem bat** proiektua.

Urriak 12

Academia 1830 & Hodeiertz **Abesbatza & Arimaz orkestra**



KANTIK
III. Ahots Musika Zikloa
III Ciclo de Música Vocal
Hodeiertz Abesbatzak Antolatuta
TOLOSA 2019

Urriak 12 - 20:15ean
San Frantzisko Eliza

"Cor Acadèmia 1830"
Zuzendaria: Fernando Marina
(Mallorca)

"Hodeiertz Abesbatza"
Zuzendaria: Enrique Azurza
(Tolosa)

"Arimaz Kamera Orkestra"
(Tolosa)
Sopranoa: Julia Blasco

Sarrera: 10€
Murriztua: 5€

John Rutterren *Requiem* obra latinezko eta ingelesezko salmoz osatutako konposaketa musikala da, soprano bakarlari, abesbatza misto eta orkestra txiki batentzat edo organo eta talde instrumental batentzat idatzia. 1985eko urriaren 13an estreinatu zen Dallaseko (Texas) Lovers' Lane United Methodist elizan, Sanctuary Choir and orchestra taldearen eskutik. Harrezkero, horixe izan da John Rutterrek idatzitako obra guztien artean nazioartean gehien interpretatu dena, nola elizetan hala kontzertu aretoetan. Ezinbestean pasarte ilunagoak ere badituen arren, Rutterren *Requiem* hau obra baikorra da nabarmen, itxaropenezko mezua transmititzen duena aukeratutako testuen edertasunaren eta konpositorearen musika inspiratuaren bitartez.

ACADÈMIA 1830



Acadèmia 1830 Elkartearen baitan, Fernando Marina eta Llorenç Gelabertek ganbera abesbatza sortu zuten 2011ko urrian. Korukideek prestakuntza musikal eta bokal sendoa dute, baita eskarmentu zabala ere, dela bakarlari, abesbatzako kide, instrumentista, konposatzaile edota abesbatza edo banda zuzendari bezala. Gainera, abesbatza honek helburutzat dauka hutsune zehatz bat betetzea Balear Uharteetako panorama koralean, eta gaur egungo nazioarteko errepertorio korala

nahiz Mallorcako egileen musika ezagutzera ematea (Baltasar Bibiloni, Pep Alarcon, Jaume Salom eta veste hainbaten obrak estreinatu ditu dagoeneko).

Academia 1830 orkestrarekin batera, inoiz idatzitako oratorio garrantzitsuenetako asko interpretatu izan ditu: J. S. Bachen BWV 4, BWV 84, BWV 22 kantatak, Sol minorreko BWV 235 meza eta Pasioa San Juanen arabera, G. Fr. Haendelen Israel Egipton, Mozarten Requiem edo Pucciniren Loriatze Meza.

Acadèmia 1830 abesbatzak hainbat emanaldi eskaini ditu uharteko auditorio eta jaialdi garrantzitsuetan: Palmako Teatro Principal antzokian, Palmako Auditorioan, Palmako Patioen Jaialdian, Manacorrekko Auditorioan, *Sa Maniga* Auditorioan, Sóller, Sa Pobla, Inca, Pollensa, Portocristo eta Santa Margalida aretoetan, e.a. Menorcan ere eman ditu kontzertuak, besteak beste, Ciudadelako 2012ko Musika Gaztedien Udako Jaialdiaren inaugurazioan eta Mozarten Requiemarekin kontzertu-bira eginaz 2018ko Pazko Astean, Ciudadelan zein Mahoneko Teatro Principal antzokian. 2019ko ekainean Bordeleko (Frantzia) *La nuit des églises* jaialdian parte hartu zuen.

Zuzendaria: Fernando Marina



HODEIERTZ ABESBATZA



1983. urtean sortua, eskaini dituen kontzertuen kalitateagatik, bere soinu zainduagatik eta programen originaltasunagatik nabarmendu da Hodeiertz abesbatza.

Estatuko eta nazioarteko hainbat lehiaketan lehenengo sariak eskuratu ditu.

Horien artean

aipagarrienak: Sari Nagusia Varna-ko Nazioarteko Lehiaketan (Bulgaria) 1991n; hirugarren sari bat Gorizia-ko Nazioarteko Lehiaketan (Italia) 2003an; eta 3. saria folklore sailean Nazioarteko Tolosako Abesbatza Lehiaketan 2010.ean, Ordiziako Oroith abesbatzarekin elkarlanean.

Nazioko nahiz nazioarteko hamaika jaialditan parte hartu du, horien artean nabarmenduz Sidneyko Operako Concert Hall salan Koru-Musikaren Munduko IV. Sinposiumaren barruan eskainitako kontzertua; koru-zuzendarien Britainiako Elkartearen Urteko Batzarrean izandako parte-hartzea – London 2001; eta Indiako Gobernuaren gonbidapenari erantzunaz Indiako hiru hiri nagusietan (Mumbai, Delhi eta Bangalore) egindako kontzertu-bira 2003. urtean. Donostiako Musika Hamabostaldi ospetsuan ere hainbat alditan parte hartu izan du.

Diskografiari dagokionean, hauek bereiziko genituzke: Javier Bustoren “Missa Brevis” eta “Missa pro defunctis” ditu grabatuak. Nicolas Bacri musikagile frantsesaren “Ixiltasunaren Ortzadarra” kantata estreinatu eta grabatu zituen Baionako orkestrarekin eta KEA Ahots taldearekin batera. Korurako musika eta jazz musika uztartzen dituen bi CD berritzaileak, Umama! eta Umama II, Larte laukotearekin grabatuak Juantxo Zeberioaren moldaketekin.

Hodeiertz abesbatzak eskaini dituen errepertorioak ere ez dira nolanhikoak izan: Thomas Tallis (1505-1585) maisuaren “Spem in alium” 40 ahots mistoetarako obra interpretatu zuen programa polikoral baten barne, Euskadiko Orkestraren egoitzan egin ohi den Maitinéés zikloaren barne eta Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa ixteko kontzertuak eskainiz.

Hodeiertz abesbatzak denetariko errepertorioak eskaini izan ditu. Halaber, Oroith abesbatzarekin eta Euskal Herriko Unibertsitateko

abesbatzekin elkarlanean aritu izan da hainbat programa elkarrekin landuz.

Azken urteetako ekintzen artean, nabarmentzekoak dira 2014an Parisera eginiko bidaia, bertako Paris 8 Unibertsitateak gonbidatuta, euskal musika tradizionala eta garaikidea ezagutzera emateko asmoz. Urte horretan bertan Madrilera gonbidatu zuten Tomas Tallis-en "Spem in Alium" (40 ahotsetan) interpretatzeko antzinako musikan aditu onenetako baten zuzendaritzapean, The Tallis Scholars-eko zuzendaria den Peter Phillips.

2016. urtean, La Caixak antolatutako kontzertu parte-hartzailean esku hartzeko gonbita jaso zuen. G. F. Händelen Mesias obra eskaini zuten, Ensemble Matheus orkestra eta Les Éléments koru profesionalarekin batera, Jean-Christophe Spinosi zuzendari frantses ospetsuaren gidaritzapean.

2017. urtea berezia izan zen Hodeiertz abesbatzarentzat, ohiko kontzertuak eskaintzeaz gain, KANTIK izeneko ahots-musika zikloa jarri baitzuen martxan. Zikloari esker, Tolosa eta inguruetan abesbatza eta ahots jardunarekin loturiko 4 kontzertu entzun ahal izan ziren, bertako zein kanpoko taldeen parte-hartzearekin.

2018an, KANTIK zikloaren bigarren edizioa antolatzeaz gain, Valladoliden kontzertua eskaini zuen bertako Alterum Cor abesbatzarekin batera ekainean. Azaroan African Sanctus obra berezia taularatu zuen, 50. Nazioarteko Abesbatzaren Lehiaketa barruan, kontzertu berezi gisa.

2019a abiatzearekin batera, Haydnen *Die Schöpfung* obra interpretatu zuen Mallorcan, Academia 1830 orkestra eta abesbatzarekin batera. Horrez gain, abesbatzako emakumeek Kukai dantza taldearen Erritu ikuskizunean parte hartu dute urtean zehar.

Aurtengo urrian KANTIK zikloaren 3. edizioa antolatuko da, eta haren baitan hiru kontzertu interesgarri; besteak beste, Hodeiertzek berak Rutterren *Requiem* obra eskainiko du.

2019a amaitzeko, aurtengo Gabonetako kontzertua berezia izango da, Gabonetako Umama ekimenean parte hartuko baitu.

<https://hodeiertz.eu>

Zuzendaria: Enrique Azurza



ARIMAZ KAMERA ORKESTRA

Talde hau duela hamar urtetik gora sortu zen Tolosako Musika Eskolaren babesean, soka instrumentu ikasleen ikasketak osatzeko asmoz.

Taldekide guztiak eskolako ikasleak edo ikasle ohiak dira eta irakasleek ere aktiboki parte hartzen dute taldearen jardunean.

Emanaldiak eskaini ditu hainbat jaialditan, besteak beste, Barroco Aire jaialdian, Donostiako Musika Sakratuaren Zikloan, Lasarteko Musika Astean, Azkoitiko Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloan... eta kontzertuak eskaini ditu Gipuzkoa osoan, hala nola, Lasarten, Donostian, Zestean, Legazpin, Tolosan bertan, Pasaian, Eskoriatzan, Hernanin...

Azken urteotan askotariko egitarau musikaletan parte hartu du: Heinichenen oboe kontzertua, Telemannen tronpa kontzertua, Bach nahiz Mendelssohnen kantatak, Debussyren *Danse Sacre et Macabre* harpa eta orkestra kontzertua, Griegen piano eta orkestra kontzertua, Schuberten bukatu gabeko sinfonia, Mozarten *Bastian und Bastienne* opera...



18 de Octubre

**Coral de l`institut de Begues &
Laskorain Abesbatza**



KANTIK
III. Ahots Musika Zikloa
III Ciclo de Música Vocal
Hodeiertz Abesbatzak Antolatuta
TOLOSA 2019

Urriak 18 - 19:30ean
Sakramentinoak

"Begues Institutoko Abesbatza"
Zuzendaria: Manel Cubeles
(Barcelona)

"Laskorain Ikastola"
Zuzendaria: Naiara Mintegia
(Tolosa)

CORAL DE L'INSTITUT DE BEGUES

2009. urtean Begues institutuan martxan jarri zenez geroztik, ikastetxeko ikaslez osatutako abesbatza izan dute zentroan. Ekimen honen asmoa da musika eta kantu zaletasuna sustatzea ikasleen artean. Helburu horrekin, ikastetxeak abesbatza bat eta talde instrumental bat mantendu ditu urte hauetan guztietan.

Abesbatzak Hezkuntza Sailak antolatutako hainbat ekitalditan parte hartu du Lleida, Girona, Manresa eta Vilanova i la Geltrú hirietan. Halaber, kontzertu berezi bat eskaini zuen Sant Sebastiá hirian, Begueseko Cor Ad Libitum abesbatzarekin elkarlanean.

Ikastetxeak egun seinalatuetan antolatzen dituen ekitaldietan ere parte hartzen du, hala nola, musikarien egunean, Gabonetan, Sant Jordi egunean eta ikasturte amaierako ekitaldian.

Tolosako Lask Abesbatzarekin egingo duten hirugarren elkartrukea da aurtengoa.

LASKORAIN ABESBATZA

Laskorain Abesbatza 1993an sortu zen Laskorain Ikastolaren baitan. Bi abesbatzek osatzen dute, bata 8 eta 9 urteko 35 ikaslez osatua eta bestea 10-14 urtebitarteko 25 ikaslez osatua.

Bere historian zehar hainbat zuzendari izan ditu eta 2004 urteaz geroztik Naiara Mintegia dabil abesbatzaren zuzendari lanetan, aldi berean ikastolako musika irakasle ere badelarik.

Hainbat elkartruke burutu dituzte Katalunia, Valentzia, Asturias etab.-eko abesbatza desberdinekin. Honakoa Begueseko Institutuko abesbatzarekin egiten duten hirugarren elkartrukea da.

Urtero izaten diren emanaldiez gain (Eguberriak, ikasturte amaiera...), hainbat kontzertu berezi izan dituzte (Benito Lertxundi, Ken Zazpi, Et Incarnatus...) eta 2011n disko bat grabatu zuten.